Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko ekainaren 21a, osteguna — 119 — Jueves, a 21 de junio de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZUMAIAKO UDALA

*Iragarkia*

Alkateak, 2018ko ekainaren 12ko 545/2018 Alkate erabakiz ondorengo deialdia onartu du:

*Euskara Zerbitzuaren deialdia euskara ikasteko diru-laguntzak emateko.*

1. *Xedea.*

Deialdi honen xedea da diru-laguntzak norgehiagoka erregimenean emateko moduan arautzea eta euskara ikasi nahi dutenei horretarako diru-laguntzak ematea.

2. *Onuradunak.*

Helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten zumaiarrak izango dira diru-laguntza hauen onuradun, betiere araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3. *Eskaerak.*

Zumaiako Udaleko Euskara Zerbitzuak prestatutako ereduaren arabera aurkeztuko dira eskaerak (I. eranskinean ematen da eredu hori).

Arau-oinarriak eskuratzeko, agiriak eskuratzeko eta informazioa eskatzeko, jo helbide honetara: Euskara Zerbitzua, Zumaiako Udala Foruen enparantza 1 zenbakira edo eta Udalaren www.zumaia.eus webgunera.

Eskabideak aurkezteak deialdi honetan jasotako baldintza guztiak berariaz eta oso-osorik onartzen direla esan nahi du.

2017/2018 ikasturtean HABEren mailaren bat edo baliokideren bat egiaztatzen duten ikasleek, HABEk 2018. urtean euskara-ikasleentzako egingo duen diru-laguntzetarako deialdian parte hartu beharko dute. Zumaiako Udalaren diru-laguntza HABEk emandakoaren osagarria izango da eta 11. artikuluan zehazten den ehunekoa izango da gehieneko muga.

4. *Aurkeztu Beharreko agiriak.*

Eskaerak I. eranskinaren jarraibideen arabera aurkeztu beharko dira eta eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Diru-laguntzaren eskaera normalizatua, I. eranskinean ematen denaren modukoa, behar bezala beteta.

b) Nortasun Agiriaren fotokopia.

c) Ikastaroa ordaindu izanaren egiaztagiria.

d) Egindako ikastaroan asistentzia % 80tik gorakoa izan dela ziurtatzen duen agiria, euskaltegiak edo ikasketa zentroak berak emana.

## AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

*Anuncio*

El 12 de junio de 2018, el Alcalde por Decreto de Alcaldía 545/2018 ha aprobado la siguiente resolución:

*Convocatoria para la concesión por parte del Servicio de Euskera de ayudas para aprender euskera.*

1. *Objeto.*

Es objeto de la presente convocatoria regular la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva y conceder de subvenciones a personas que desean aprender euskera.

2. *Beneficiarios.*

Serán beneficiarios de las presentes subvenciones aquellos vecinos de Zumaia que hayan realizado cursos para el aprendizaje de la lengua vasca y alfabetización para adultos, siempre y cuando estos cumplan con las condiciones establecidas en el presente reglamento.

3. *Solicitudes.*

Las solicitudes se presentarán cumplimentando el modelo confeccionado desde el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Zumaia y recogido en el Anexo I del presente documento.

Para consultar las bases, obtener los documentos necesarios, y solicitar información, los interesados deberán dirigirse a la siguiente dirección: Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Zumaia, Plaza de los Fueros n.º1. O bien a la página web del Ayuntamiento: www.zumaia.eus.

La presentación de solicitudes supone la aceptación total y expresa de todas las condiciones establecidas en la presente convocatoria.

Los alumnos y alumnas que superen algún nivel de HABE (o equivalente) durante el curso 2017/2018, deberán presentarse a la convocatoria de subvenciones de HABE de 2018. La subvención del Ayuntamiento de Zumaia será complementaria a la que conceda HABE y tendrá como límite el porcentaje especificado en el artículo 11.

4. *Documentación A presentar.*

Las solicitudes deberán ser presentadas siguiendo las instrucciones establecidas en el Anexo I del presente documento. Es decir, se deberán presentar:

a) Solicitud de subvención normalizada y debidamente cumplimentada, según modelo establecido en el Anexo I.

b) Fotocopia del DNI.

c) Documento acreditativo de haber abonado el importe del curso.

d) Documento acreditativo de asistencia a más del 80 % de las clases del curso, expedido por el propio euskaltegi o centro de estudios.

EK\CV GAO-I-2018-04377

*5. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua.*

Eskaerak Udalaren Erregistro Orokorrean edo Euskara Zerbitzuan aurkeztu behar dira, uztailaren 1etik 15erako epean lehenengo deialdian (urritik ekainerako ikastaroak) eta urriaren 1etik 15era bitartean bigarren deialdian (udako ikastaroak).

Egiaztatzen bada aurkeztutako dokumentazioa ez dagoela osorik edo dokumentazio horrek ez dituela betetzen oinarri hauetan adierazitako baldintzak, pertsona interesdunari eskatuko zaio akats formalak egutegiko hamar eguneko epean konpontzeko edo beharrezkoak diren agiriak aurkezteko. Adieraziko zaio, hori egiten ez badu, ezetsitzat joko dela bere eskaera, eta hura artxibatuko dela, bestelako tramiterik egin gabe, indarreko araubideak adierazten duen moduan.

*6. Aurrekontuko diru-hornidura.*

Aipatutako diru-laguntzarako 25.918,32 € daude 1 0200.481.335.00.01 2018 (105) kontu-sailean, eta hauek banatuko dira oinarri espezifikoak diotena betetzen duten eskaintzen artean.

*7. Eskaerak balioztatu eta laguntzak emateko baldintzak.*

Eskaerak emateko irizpidea izango da baldintza guztiak betetzen dituela ziurtatzea. Horretarako, Euskara Zerbitzuko teknikariek egiaztatuko dute eskatzaileek baldintza guztiak betetzen dituztela. Hau da:

— Egindako ikastaroan % 80ko asistentzia egiaztatzea.

— Egindako ikastaroa ordaindu izana.

— Zumaian erroldatuta egotea.

*8. Diruz lagun daitezkeen gastuak.*

Diruz lagun daitezkeen gastuak dira diruz laguntzen diren jarduerak egiteko egin behar direnak, baldin eta oinarri hauetan ezarritako epean egiten badira. Alderdi horri dagokionez, beti bete beharko da Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31. artikulua (azaroaren 17ko 38/2003 Legea).

*9. Eskaerak aztertu eta balioztatzea.*

Euskara ikasteko diru-laguntzak ematerakoan eskaerak aztertu eta balioztatzea Zumaiako Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikariei dagokie.

*10. Erabakia.*

Euskara zerbitzuburua izango da instrukzioaren arduraduna eta, aurrez Euskara Batzordean txosten teknikoa aurkeztu eta gero, ebazpen proposamena egingo duena.

Guztia gehienez 6 hilabeteko epean egin beharko da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hastia.

Aipatutako epea igaro eta gero, Udalak eskabideren bati buruzko erabaki zehatzik hartu gabe izango balu, erantzuna ezezkoa dela esan nahiko du horrek.

*11. Diru-laguntzaren zenbatekoa eta hura ordaintzeko modua.*

— Ohiko ikastaroak;

Euskara ikasteko diru-laguntzen barruan, ohiko ikastaroak direnean, ikastaroaren kostuaren % 75 ordainduko zaio pertsona bakoitzari. Hala ere, ikastaroak iraun bitartean langabezian egon diren ikasleei eta egoera hori behar bezala egiaztatzen dutenei, ikastaroaren kostuaren % 100 ordainduko zaie.

*5. Plazo y lugar de presentación de solicitudes.*

Las solicitudes deberán ser presentadas en el Registro General o bien en el Servicio de Euskera del Ayuntamiento, del 1 al 15 de julio (en el caso las solicitudes de primera convocatoria, para cursos de octubre a junio), y del 1 al 15 de octubre (en el caso de solicitudes de segunda convocatoria, para cursos de verano).

En caso de comprobarse que la documentación presentada está incompleta o que no cumple con las condiciones establecidas en las presentes bases, se solicitará a la persona interesada que en el plazo de diez días naturales subsane los errores formales o presente la documentación necesaria. Se le comunicará, asimismo, que de no ser así la solicitud será rechazada y archivada, sin realizar más trámites, tal y como establece la normativa en vigor.

*6. Dotación presupuestaria.*

Para la subvención mencionada se destinarán 25.918,32 € que se encuentran en la partida 1 0200.481.335.00.01 2018 (105) y se distribuirán entre las solicitudes que cumplan con lo dispuesto en las bases específicas.

*7. Valoración de solicitudes y condiciones para el otorgamiento de las subvenciones.*

El criterio utilizado para otorgar las solicitudes será el de comprobar que éstas cumplen todos los requisitos. Así pues, los técnicos del Servicio de Euskera serán los encargados de comprobar que los solicitantes cumplen todas las condiciones. Es decir, contrastarán los siguientes datos:

— Asistencia al 80 % del curso realizado.

— Abono del curso realizado.

— Empadronamiento en Zumaia.

*8. Gastos subvencionables.*

Serán subvencionables todos aquellos gastos necesarios para la realización de las actividades objeto de esta subvención, siempre y cuando hayan sido efectuados dentro del plazo comprendido en las bases de esta convocatoria. En todo lo referente a este asunto, será de obligado cumplimiento lo establecido en el artículo 31 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

*9. Presentación y valoración de solicitudes.*

Corresponde al personal técnico Euskera el análisis de los procedimientos establecidos en las bases generales de las solicitudes realizadas en el ámbito de actuación de Euskera.

*10. Fallo.*

La persona responsable del servicio de euskera de hará cargo de la instrucción, y tras presentar el informe técnico en la Comisión de Euskera, efectuará la propuesta de resolución.

Todos esos trámites deberán ser realizados en un plazo máximo de 6 meses, contados a partir de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Una vez transcurrido dicho período y sin que el Ayuntamiento haya tomado una decisión en concreto sobre alguna de las solicitudes, ésta se entenderá denegada.

*11 Cuantía y abono de la subvención.*

— Cursos ordinarios;

En el caso de los cursos ordinarios enmarcados dentro de las subvenciones para el aprendizaje del euskera, se abonará a cada beneficiario el 75 % del coste del curso. No obstante, a aquellos alumnos que hayan estado desempleados durante la realización del curso y que acrediten debidamente dicha situación, se les abonará el 100 % del coste del mismo.

EK\CV GAO-I-2018-04377

— Ikastaro trinkoak eta barnetegiak;

Ikastaro trinkoak dira egunean hiru ordutik gorako ikastaroak (3 ordukoak barne). Bestalde, barnetegien kasuan ez dira ostatu-gastuak diruz lagunduko.

Beraz, kasu hauetan, langabezian dauden ikasleei eskola orduen matrikularen % 75 ordainduko zaie, gehienez ere, 600 euroko topearekin.

Gainerako guztiei eskola orduen matrikularen % 50 ordainduko zaie, gehienez ere 450 euroko topearekin.

— Autoikaskuntza:

Kasu hauetan langabezian dauden ikasleei matrikularen % 100 ordainduko zaie, gehienez ere 600 euroko topearekin.

Gainerakoei, berriz, matrikularen % 75 ordainduko zaie, gehienez ere 450 euroko topearekin.

— Ordainketa.

Banku-transferentzia bidez egingo da diru-laguntzen ordainketa, onuradunaren titularitatepeko kontu batean.

Diru-laguntza emango dela jakinarazi eta gero, onartutako zenbatekoaren % 100 ordainduko da.

Deialdiko xede diren ekintzak egiteko behar diren diru-zenbatekoen ordainketa aurreratuak egitea baimen dezake alkate-udalburuak. Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak, 38/2003 legeak 34. artikuluak egiten duen araupenaren arabera egingo dira aurrerapen horiek.

Ordaindu beharreko kantitatea aurrekontuan izendatutako kopurua baino handiagoa bada, orduan, banaketa proportzionala egingo da eskatzaile guztien artean.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du eskumena esleituta duen organoak, aldaketaren zenbatekoaren arabera, diru-laguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

*12. Araubidea.*

Deialdi honek aurreikusi gabeko alderdi guztietan, betetzekoak izango dira azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzei buruzko lege orokorra (azaroaren 18an argitaratua *Estatuko Aldizkari Ofizialean*), lege horren garapeneko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 errege-dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25ean argitaratua *Estatuko Aldizkari Ofizialean*), Zumaiako Udalaren diru-laguntzak emateko Ordenantza Arautzaile Orokorra.

Zumaia, 2018ko ekainaren 12a.—Oier Korta Esnal, alkatea.
(4377)

— Cursos intensivos e internados;

Se considerarán cursos intensivos aquellos que tengan una duración diaria de tres o más horas. En el caso de los internados o barnetegis, no se subvencionarán los gastos de alojamiento.

Con todo ello, en los cursos de esta modalidad, se abonará el 75 % de la matrícula de las horas lectivas a aquellos alumnos en estado de desempleo, hasta un máximo de 600 euros.

Al resto de alumnos, se les abonará el 50 % de la matrícula de horas lectivas, hasta un máximo de 450 euros.

— Autoaprendizaje:

En el caso del autoaprendizaje, se abonará el 100 % de la matrícula a aquellos alumnos en estado de desempleo, hasta un máximo de 600 euros.

Al resto de alumnos, en cambio, se les abonará el 75 % de la matrícula, hasta un máximo de 450 euros.

— Pago.

El pago de la subvención se realizará mediante transferencia bancaria a una cuenta de titularidad del beneficiario.

Una vez comunicado el otorgamiento de la subvención, se hará efectivo el pago del 100 % de la cuantía aceptada.

Asimismo, el Alcalde-Presidente podrá dar permiso para efectuar por adelantado los pagos correspondientes a las subvenciones necesarias para realizar las actividades objeto de la presente convocatoria. Dichos pagos adelantados se efectuarán en base a lo establecido en el artículo 34 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

Cuando la cantidad a pagar sea superior a la dotación presupuestaria total consignada en el presupuesto, se procederá al prorrateo proporcional a la cantidad que corresponda a cada solicitante.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado o disminuido, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

*12. Reglamento.*

En todo lo no estipulado en la presente convocatoria, serán de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (publicada en el *Boletín Oficial del Estado* del 18 de noviembre); el Reglamento de Desarrollo de dicha ley, aprobado mediante el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (publicado en el *Boletín Oficial del Estado* del 25 de julio); y la Ordenanza Normativa General sobre otorgamiento de subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia.

Zumaia, a 12 de junio de 2018.—El alcalde, Oier Korta Esnal.
(4377)

Zumaiako Udala

2018EDIR0002-003-001

# EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO ORRIA
SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA EL APRENDIZAJE DEL EUSKARA

**Interesduna: /** Persona interesada:

| **Izen-abizenak** / Nombre y apellidos | | **NAN-AIZ** / DNI-NIE | |
|---|---|---|---|
| | | | |
| **Helbidea** / Dirección | | **Herria** / Población | **PK** / CP |
| | | | |
| **Telefonoa** | | **Helbide elektronikoa** / e-mail | |
| | | | |
| **Euskaltegiaren izena** / Nombre del Euskaltegi | | **Ikastaroa** / Curso | **Matrikularen kostua** / Coste de matrícula |
| | | | |

**Adingabea izanez gero, agiria aurkezten duen pertsonaren datuak:**
Si la persona interesada es menor de edad, datos de la persona que presenta este documento:

| **Ordezkariaren izen-abizenak** / Nombre y apellidos del/la representante | **NAN-AIZ-IFK** / DNI-NIE-CIF |
|---|---|
| | |
| **Harremana edo ahaidetasuna** / Relación o parentesco | |
| | |

**Banketxea (diru-laguntza sartzeko): /** Entidad bancaria para ingreso de la subvención:

| **Banketxea** / Entidad bancaria | **Kontu-zenbakia (IBAN barne)** / Número de cuenta (con IBAN) |
|---|---|
| | E S |

☐ **Adierazten dut interesduna ez dagoela sartuta diru-laguntzak lortzeko oinarri orokorretako 11. artikuluan aipatzen diren debeku arrazoietan.**

☐ Declaro que la persona interesada no está incursa en los supuestos de prohibición para la obtención de subvenciones a las que se refiere el artículo 11 de las Bases Generales.

☐ **BAI, 2017/2018 ikasturtean HABEren dagokion maila (edo baliokideren bat) egiaztatu dut eta HABEren diru-laguntzen 2018ko deialdian parte hartuko dut.**

☐ SÍ, durante el curso 2017/2018 he superado el correspondiente nivel de HABE (o equivalente) y me presentaré a la convocatoria de subvenciones de HABE de 2018.

☐ **EZ dut 2017/2018 ikasturtean HABEren dagokion mailarik edo baliokiderik egiaztatu.**

☐ NO he superado el correspondiente nivel de HABE (o equivalente) durante el curso 2017/2018.

**Foruen enparantza z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Faxa: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.eus**
**e-mail: info@zumaia.eus**

EK\CV GAO-I-2018-04377

Zumaiako Udala

2018EDIR0002-003-001

| | |
|---|---|
| **Zumaiako Udalari baimena ematen diot hala behar denean eskabide honetan adierazitako datuak egiaztatzeko behar dituen frogatze-lanak egin ditzan.**<br><br>**BAI** ☐ **EZ** ☐ | Autorizo al Ayuntamiento de Zumaia, cuando sea preciso, a realizar las comprobaciones pertinentes de los datos aportados en esta solicitud.<br><br>SÍ ☐ NO ☐ |

| | |
|---|---|
| **Espreski baimena ematen diot Zumaiako Udalari, hala behar denean, zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari eskatzeko beharrezkoak diren zerga-datuak, idatzi honetan zehazten den diru-laguntza eskatzeko baldintza guztiak betetzen direla kreditatu, egiaztatu eta datuok eguneratu ditzan; baita, betiere adierazitako helbururako, edozein erakunderen, entitate pribaturen (finantzakoak barne) edo administrazio publikoren datu-baseetatik beste edozein datu pertsonal lortzeko ere.**<br><br>**BAI** ☐ **EZ** ☐ | Autorizo expresamente al Ayuntamiento de Zumaia para recabar directamente del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa los datos tributarios necesarios para la acreditación, verificación y actualización, en su caso, del cumplimiento de todas las condiciones requeridas para la solicitud de subvención que se especifica en el presente escrito, así como cualquier otro dato de carácter personal que sea necesario para la finalidad mencionada, a obtener de las bases de datos de cualquier otro Organismo o Administración Pública, entidad privada, incluidas las financieras.<br><br>SÍ ☐ NO ☐ |
| **Diru-laguntza eskatu ahal izateko, agiri hauek erantsi beharko zaizkio eskabideari:**<br><br>**-Nortasun-agiriaren fotokopia**<br><br>**-Matrikula ordaindu izanaren agiria**<br><br>**-Asistentzia-ziurtagiria (gutxienez % 80)**<br><br>**-Langabe txartela, bizitza laborala edo Gizarte Zerbitzuetako txostena (matrikularen % 100 ordaintzeko)**<br><br>**-Hirugarrenen alta emateko agiria (eranskinean), banketxean sinatuta eta zigiluz jota** | Documentos que hay que aportar junto con esta solicitud para poder solicitar la subvención:<br><br>-Fotocopia del DNI/NIE<br><br>-Justificante del abono de la matrícula<br><br>-Certificado de asistencia (mínimo 80%)<br><br>-Tarjeta de paro, vida laboral o Informe de los Servicios Sociales (para cobrar el 100% de la matrícula)<br><br>-Documento de alta de tercera persona interesada (anexo), con la firma y sello del banco |

**Zumaia, 20_____ko___________________(a)ren______**
(**Eguna/** Fecha**)**

_____
**Sinadura**
**(izen-abizenak eta NAN-AIZ adierazita)**
Firma
(con nombre, apellidos y DNI-NIE)

Foruen enparantza z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Faxa: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.eus
e-mail: info@zumaia.eus

Zumaiako Udala

2018EDIR0002-003-001

# **ERANSKINA**/ANEXO

| **HIRUGARREN INTERESDUNARI ALTA EMATEA**<br>ALTA DE TERCERA PERSONA INTERESADA |
|---|

| **A** | **HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK**<br>DATOS IDENTIFICATIVOS DE LA TERCERA PERSONA |
|---|---|
| **NAN/AIZ/IFZ**<br>DNI/NIE/CIF | |
| **Izena eta bi abizenak**<br>Nombre y dos apellidos | |
| **Helbidea**<br>Domicilio | |
| **Posta-kodea**<br>Código postal | **Herria**<br>Población |
| **Lurraldea**<br>Provincia | |

| **B** | **BANKUAREN DATUAK**<br>DATOS BANCARIOS |
|---|---|
| **BANKUA (IBAN kode eta guzti)**<br>BANCO (con código IBAN) | |
| **BULEGOA**<br>AGENCIA | |
| **KOD**<br>DC | **KONTU-ZENBAKIA**<br>Nº CUENTA |
| **JABEA**<br>TITULAR | |
| **Oharra: Kontuaren jabeak hirugarrena bera izan behar du.**<br>Nota: El titular de la cuenta tiene que ser el mismo que la tercera persona interesada. | |

| **C Bankuaren adostasuna**<br>Conforme banco | **D Hirugarren interesdunaren adostasuna**<br>Conforme tercera persona interesada | **E Udalaren onespena**<br>VºBº Ayuntamiento |
|---|---|---|
| **Sinadura eta zigilua**<br>Sello y firma | **Sinadura**<br>Firma | **Sinadura eta zigilua**<br>Sello y firma |

Zumaian, 20_____ko_______________(a)ren _______
(**Eguna** / Fecha)

Foruen enparantza z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Faxa: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.eus
e-mail: info@zumaia.eus

EK\CV GAO-I-2018-04377